

**BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN PLEGUA, DEBA IBAIA ERREKUPERATU
ETA BALIOA EMATEKO PROGRAMA INTEGRALAREN ERREDAKZIO LANEN
KONTRATAZIOA, IRAGARRITAKO PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZKOA,
ARAUTUKO DUENA.**

1. KONTRATUAREN XEDEA

DEBA BEHEKO GARAPEN EKONOMIKORAKO ELKARTEA - SOCIEDAD PARA EL DESARROLLO ECONOMICO DEL BAJO DEBA, S.A. (DEBEGESA) Debabarrenean, hau da, Deban, Eibarren, Elgoibarren, Ermuan, Mallabian, Mendaron, Mutrikun eta Sorluzen garapen iraunkorrerako interesa duten jarduerak betetzen dituen elkarte bat da.

Kontratu honen oinarrian Debabarreneko Garapen Iraunkorrerako Plan Estrategikoan (2006-2010) jasotakoa dago. Eskualdeko zortzi udalek onartutako plan horretan Debabarrenerako estrategikoak diren 7 proiektu zehazten dira, eta haietako bigarrena “Deba ibaia” izeneko da. Era berean, Agenda 21 Eskualdeko Ekintza Planean (2003an onartua) eta Debabarreneko Turismoa Sustatzeko Planean berariaz adierazten da garrantzitsua dela “Deba ibaiari” balioa emateko aukera ekarriko duen azterlan bat egitea.

Lan hau Ingurumen eta Lurraldearen Antolamendu Saileko Uraren Euskal Agentziaren lankidetzarekin egin da. Deba ibaiari dagokionez, Autonomia Erkidegoko administrazioaren eskumen osoa da uraren arloko legeek arautzen dituzten gaietako administrazio ebazpenak ematea (Uraren Euskal Agentziaren bitartez). Alegia, Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeak izaera juridiko berria ematen dio Uraren Euskal Agentziari, ordura arte nagusiki Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak betetako eginkizunak eta eskumenak bere gain har ditzan, bai eta 1/2006 Legeak ematen dizkion beste berri batzuk ere. Lan horien artean daude Plangintza Hidrologikoarekin zerikusia duten guztiak, zeinak Uraren Esparru-Zuzentarauak (2000/60/EE) ezarritako jarraibideekin bat beteko baitira.

Finean, kontratuaren xedea da Ibaiak eta haren inguruneak dituzten natur baliabideen, ondare historiko artistikoaren eta giza jardueraren egoerari buruzko informazioa biltzea. Aldi berean, eta azterlan horren emaitza moduan, ibaiaren erabilera eta kudeaketarako arauak ezartzeko asmoa dago, eta halaber etorkizunean bete beharko diren ekintzak. Helburua da Deba ibaiaren plangintza eta kudeaketa integratu eta integratzailea egitea.

Lanaren esparrua Deba ibaiak Debabarreneko eskualdean egiten duen tartea izango da (Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze).

Hau da, helburua da Deba ibaiari eta haren ibai-adarrei balioa ematea, eskualdeko ardatz antolatzailea diren aldetik, eta Debabarreneko paisaiaren, nortasunaren eta erakarmenaren funtsezko osagai bilaka daitezen.

Horretarako, beharrezkoa da zerbitzu-kontratu baten lizitazioa egitea, haren bitartez Deba ibaia errekuiperatu eta balioa emateko programa integral bat egiteko, kontuan hartuta kontratuak berarekin dakarren prestazioaren xedea bat datorrela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legearen 10. artikuluan araututakoarekin. Kontratua pribatua da, aipatutako lege horren 20. artikuluan ezarritakoaren haritik.

2. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratua adjudikatzeko iragarritako prozedura negoziatua erabiliko da.

Prozeduraren xedea da eskaintza ekonomiko onena aurkezten duen enpresaburua aukeratzea, parte hartuko duten lizitatzailerekin negoziatu ondoren.

Negoiazioa plegu honen 15. baldintzan adierazitako alderdi ekonomiko eta teknikoen ingurukoa izango da.

3. ALDAGAIK

Ez da aldagairik onartuko.

4. ENTITATE KONTRATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Entitate kontratatzailea Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea - Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba, S.A. da (aurrerantzean, DEBEGESA).

Kontratazio organoa, berriz, elkarteko zuzendari-kudeatzailea da eta, beharrezkoa bada eta aplikatzekoa den zuzenbide pribatuko arauekin bat, kontratuarekin lotutako ekintza zehatzak betetzeko ahalmena eman ahal izango die haren ustez egokiak diren pertsoneri.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Adjudikazioa egin ondoren formalizatuko den kontratuaz gain, klausula ekonomiko administratiboen plegu honek, arau teknikoen pleguak eta adjudikazioa lortzen duen proposamenak ere kontratu izaera dute.

Kontratua formalizatzeko ekitaldian, adjudikazio hartzaileak izenpetu egin beharko ditu agiri horiek, haiekin ados dagoela frogatzeko.

6. EXEKUZIO EPEA

Kontratuaren helburua den prestazioaren exekuziorako gehieneko epea HAMAHIRU (13) HILABETEKOA izango da, kontratua formalizatu eta hurrengo

egunetik hasita. Epe hori hobetu ahal izango da lizitatuzaileen eskaintzetan eta negoziazio fasean.

Era berean, adjudikazio hartzaileak arau teknikoen pleguko 4. klausulan ageri diren exekuzio faseen arabera bete beharko ditu lanak, eta horiei dagozkien zatikako epeetan.

Aipatutako epeak, zatikakoak nahiz osoak, betetzen ez badira, kontratistaren aldetik berandutza dagoela ulertuko da, eta ez da horren jakinarazpenik egin beharrik izango.

7. LIZITAZIO AURREKONTUA

Zerbitzuaren lizitaziorako gehieneko aurrekontua 71.400 EUROkoa da, BEZa barne hartu gabe.

Aurrekontua fase hauetan beteko da:

- 1.- Diagnostikoa ematean, %20.
- 2.- Hausnarketa estrategikoaren agiria ematean, %10.
- 3.- Ekintza planaren agiria ematean, %50.
- 4.- Komunikazio planaren garapena eta proiektua gauzatzeko beharrezkoa den komunikazio materiala ematean, %20.

Lizitatuzaileek kontu-sail bereizi batean adierazi beharko dute DEBEGESAK jasandako BEZaren zenbatekoa.

Ez da onartuko lizitazio aurrekontua gainditzen duen proposamenik.

8. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan ez da egingo prezioen berrikuspenik.

9. ORDAINTZEKO MODUA

Dagokion faktura aurkeztu eta DEBEGESAk adostasuna eman ondoren ordainduko da kontratuaren prezioa, lanen exekuziorako fase bakoitza behin amaituta, lanak hartu edo adostasuna emateko ekitaldia egin eta 45 eguneko epean.

10. GAITASUNERAKO BALDINTZAK

DEBEGESArekin kontratua egin ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek zein atzerrikoek, kontratatzeke debekurik ez badute eta kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala frogatzen badute.

Enpresaburuek, halaber, kontratuaren xedea diren prestazioak egiteko eskatzen den gaikuntza profesionala edo enpresa arlokoa eduki beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikazio hartzaileak izateko, kontratuko prestazioak sartuta egon beharko dira horiek, estatutuei edo fundazio araei jarraikiz, berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera esparruaren barruan.

Beti ere, DEBEGESArekin kontratuak egiteko gaitasuna edukiko dute Espainiakoak izan gabe Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresek, haiek ezarrita dauden estatuko legeen arabera kasuan kasuko prestazioa egiteko gaikuntza baldin badute.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeek, kasuan kasuko zerbitzua bertan emateko baimen berezi bat edukitzea edo erakunde zehatz bateko kide izatea eskatzen badute, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasuneko kide ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek frogatu beharko dute, dagokion Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorrek emango duen txostenaren bidez, atzerriko enpresaren jatorriko estatuak onartzen duela Espainiako enpresek antzeko moduan parte hartzea administrazioarekiko kontratazioan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 3. artikuluan ageri direnekin parekatu daitezkeen sektore publikoko ente, erakunde eta entitateekikoan. Txostena aurkeztuko den dokumentazioari erantsi beharko zaio.

DEBEGESArekin kontratatu ahal izango dute helburu horrekin aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek, horrelakoetan beharrezkoa izan gabe eskritura publikoan formalizatzea kontratua haien alde adjudikatu arte, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 48. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta.

11. KAUDIMEN BALDINTZAK

DEBEGESArekin kontratuak egin ahal izango dituzte pertsona naturalek nahiz juridikoek, espainiarrek zein atzerrikoek, euren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa frogatzen badituzte plegu honen 13. klausulan ezarritakoari jarraikiz.

DEBEGESArekin kontratuak egin ahal izango dituzte pertsona naturalek nahiz juridikoek, espainiarrek zein atzerrikoek, euren kaudimen teknikoa edo profesionala frogatzen badute plegu honen 13. klausulan ezarritakoari jarraikiz.

Konpromiso hori kontratuan sartuko da eta nahitaezko betebeharra izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 206.g) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

12. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau eta haren adjudikazioa DEBEGESAren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

Kontratatzailearen profilerako sarbidea www.debegesa.com web orrian egongo da.

13. ESKAINTZEN ETA DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENA

Eskaintzak aurkezteak berarekin dakar lizitatuak baldintzarik gabe onartzea plegu hau osotara eta kontratuaren inguruko gainerako dokumentazioa, inolako salbuespenik gabe.

Plegu hau eta arau teknikoen plegua DEBEGESAren web orrian, <http://www.debegesa.com/perfil-de-contratante> helbidean, aztertu ahal izango dira, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Lizitazio honetan parte hartzeko proposamenak lizitazioaren iragarkia argitaratu eta 15 egun baliodunean epean jaso beharko dira. Gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira, aurrerago adieraziko den dokumentazioarekin, eta bertan idatzita enpresaren izena, proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak eta zer izaerarekin egiten duen, telefono eta fax zenbakiak, posta elektronikoko helbidea, datu guztiak irakurtzeko moduan.

Gutun-azalean hau jarriko da: **“Deba ibaia errekuperatu eta balioa emateko programa integralaren”** kontratazioan, iragarritako prozedura negoziatuaren bidezkoan, parte hartzeko eskaintza.”

Lizitatzailleak postaz bidaltzen badu bere eskaintza, justifikatu beharko du Posta bulegoan bidalketa egin zeneko eguna eta egun berean jakinarazi DEBEGESAri eskaintza igorri duela, telex, fax edo telegrama urgentearen bidez. Era berean, bidalketa jakinarazteko posta elektronikoa ere erabili ahal izango da. Posta elektronikoko bidalketa baliozkoa izateko, jasota geratu behar da bidali eta jaso egin dela, datak eta jakinarazpenen eduki osoa eta bidaltzailea eta hartzailea ziurtasunez identifikatuta. Kasu horretan, paperezko kopia egin eta erregistratuko da, eta espedienteari erantsiko zaio.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira edo bidalketaren jakinarazpena eskaintzak jasotzeko ezarritako epea amaitu ondoren hartzen bada, eskaintza ez da onartuko.

Nolanahi ere, egun horretatik hamar egun natural igaro ondoren eskaintza jaso gabe, hura ez da inolaz ere onartuko.

Gutun-azalaren barruan agiri hauek egongo dira:

a) Lizitatzaillearen jarduteko gaitasuna eta, kasua bada, ordezkaritza, frogatzen duten agiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eratzeko eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen edo fundazio aktaren bidez frogatuko da; bertan jasota egongo dira jardueraren gaineko arauak. Agiri horiek, gainera, behar bezala inskribatuta egongo dira erregistro publikoan, zein den pertsona juridikoa, horri dagokionean.

- Espainiakoak ez baina Europar Batasuneko kide diren estatuetakoz nazionalitatea duten enpresaburuen jarduteko gaitasuna haiek ezarrita dauden estatuko legeen arabera dagokion erregistroan egindako inskripzioaren bitartez

frogatuko da, edo zinpeko aitorten bat edo egiaztagiri bat aurkeztuz, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenekin bat.

- Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna Espainiak kasuan kasuko Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo enpresak egoitza duen lurraldeko bulego kontsularrak emandako txostenaren bidez frogatuko da. Txosten horren bitartez frogatu beharko da atzerriko enpresaren jatorriko estatuak onartzen duela Espainiako enpresek antzeko moduan parte hartzea administrazioarekiko kontratazioan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 3. artikuluan ageri direnekin parekatu daitezkeen sektore publikoko ente, erakunde eta entitateekikoan.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna Nortasun Agiri Nazionala aurkeztuz frogatuko da, edo kasuan kasuko estatuan baliokidea dena.

- Beste baten izenean agertzen direnek edo haien proposamenak izenpetzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta aski den ahalordea. Enpresa pertsona juridikoa denean, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eskatu beharrekoa denean.

- Aldi baterako elkarte bat osatuta parte hartu nahi duten enpresaburuek adierazi beharko dituzte elkarte osatzen dutenen izenak eta ezaugarriak eta zein den bakoitzaren partaidetza, bai eta bere gain hartzen dutela aldi baterako elkarte formalki osatzeko konpromisoa, adjudikazio hartzaile gertatuz gero. Aldi baterako elkarte bat osatuta parte hartu nahi duten enpresaburuek erantzukizun solidarioa edukiko dute, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratuak, iraungi arte, dakartzan eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko behar adinako

ahalmenekin, ezertan galarazi gabe zenbateko handiak kobratu eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak emateko aukera.

Enpresaburuen aldi baterako elkarte osatzen duten guztiek euren gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko dituzte plegu honetan aurreikusitakoaren arabera, eta aldi baterako elkartearen kaudimena zehazte aldera pilatu egingo dira kideek frogatutako ezaugarriak, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 52. artikuluan aurreikusitakoa ukatu gabe, ondorio hauetarako osotara aplikatzekoa baita.

Dokumentazio guztia jatorrizko agirietan aurkeztuko da, edo behar bezala konpultsatu edo kautotutako kopien bidez.

b) Lizitatzailleak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 49.1 artikuluan ezarritako debekurik ez duela dioen testigantza judiziala edo egiaztagiri administratiboa, kasuen arabera. Agiri hori agintari eskudunak ematerik ez dagoenean, haren ordez erantzukizuneko aitorpena erabili ahal izango da, agintari administratiboak, notario publikoak edo erakunde profesional kualifikatuak emanda. Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresak direnean, haren ordez agintari judizial baten aurrean emandako erantzukizuneko aitorpen bat erabili ahal izango da, aukera hori kasuan kasuko estatuko legeetan aurreikusita badago.

c) Lizitatzailleak tributu arloko betebeharrak eta gizarte segurantzakoak, indarreko xedapenek ezarritakoak, egunean dituela dioen berariazko erantzukizuneko aitorpena; adjudikazioa kontratatzailearen profilean argitaratu eta hamabost egun baliodunean, gehienez ere, aurkeztu beharko da baldintza hori betetzen dela frogatzen duen agiria.

d) Enpresaburuaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa frogatzen dituzten ziurtagiriak.

Enpresaburuaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa honako bitarteko hauek erabiliz frogatuko dira:

- Erantzukizuneko aitortpena, entitatearen lege ordezkariak zigilatua eta izenpetua, negozio bolumenari buruzkoa, azken hiru ekitaldietakoa, enpresaren sorrera egunaren edo enpresaburuaren jardueren hasiera egunaren arabera.

Bide horri dagokionez, kontratu honetarako lizitatzailleek bete beharko dituzten kaudimen ekonomiko eta finantzarioko gutxieneko baldintzak hauek dira:

- Azken hiru ekitaldietan izandako negozio bolumena, osotara, kontratuko aurrekontua lau halako baino handiagoa izatea.

e) Enpresaburuaren kaudimen teknikoa edo profesionala frogatzen duten ziurtagiriak.

Enpresaburuaren kaudimen teknikoa edo profesionala bitarte hautetatik frogatuko da:

- Lizitatzailleek egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, kontratu honekin lotuta dauden edo haren antza dutenena, azken hiru urteetan antzeko lanak zein enpresarentzat egin dituzten, enpresa horiek emandako egiaztagirien bidez ziurtatuta, zenbatekoak (BEZik gabe), datak eta hartzaileak barne.

Bide horri dagokionez, kontratu honetarako lizitatzailleek bete beharko dituzten kaudimen tekniko edo profesionaleko gutxieneko baldintzak hauek dira:

Azken hiru urteetan kontratu honen antzeko ezaugarriak dituen kontratu bat, edo honen prestazioekin lotuta edo haren antza duena, egin izana, gutxienez.

f) Atzerriko enpresek berariazko aitortpena aurkeztu beharko dute, Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe gelditzen direla adieraziz, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, uko eginez, beharrezko baldin bada, lizitatzailari legokiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari.

g) Beharrezkoa denean, lizitatzailak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribaturik daudela frogatzen duen ziurtagiriaren kopia konpultsatua (otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuaren bidez araututako erregistroa). Aipatutako ziurtagiria aurkezten duten lizitatzailak ez dute a) atalean eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko.

Atzerriko enpresek dokumentazioaren itzulpen ofiziala ere aurkeztu beharko dute, gaztelaniaz edo, hala behar denean, euskaraz.

h) Proposamen ekonomikoa, eredu honen arabera:

Jauna/andrea:

Helbidea:

NAN zk.a:

Telefonoa:

Email-a:

gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean (edo hau ordezkatuz:

izena:

.....

helbidea:

IFZ zk.a:),

Deba ibaia errekuperatu eta balioa emateko programa integralaren erredakzio lanen kontratazioan, iragarritako prozedura negoziatuaren bidezkoan, parte hartzeko interesa edukita,

ADIERAZTEN DU:

1º) Lan horiek egiteko konpromisoa hartzen duela, prezio honetan [*letra eta zenbakitan adierazi*]: euro, gehi euro, BEZaren %(ar)i dagozkionak,ko epean; prezio horretan kontzeptu guztiak sartuta daudela ulertzen da, barne direla edozein zerga-mailatako gainerako zergak, gastuak, tasak eta arbitrioak, bai eta kontratistaren industria mozkinak ere.

2º) Kontratua arautuko duten klausula ekonomiko administratiboen plegua eta arau teknikoen plegua ezagutzen dituela eta osotara onartu eta espresuki hartzen duela bere gain.

3º) Ordezkatzen duen enpresak zergen eta gizarte segurantzaren arloan indarreko arauak eskatzen dituzten baldintza eta betebeharrak guztiak betetze dituela.

.....n, 200...(e)koaren (e) an.

Sinadura.”

i) Proposamen teknikoa

Proposamen teknikoan ondotik zehazten diren agiriak sartuko dira, ulertuta adjudikazio hartzaileak nahitaez bete beharrekoak direla dokumentazio tekniko horretan ageri diren konpromisoak, kalitateari, kopuruei eta langile taldeei dagozkienak, bai eta betetzeko moduari dagozkionak ere:

1) Kontratuaren xede den programaren ezaugarriak eta eskaintzen diren zerbitzuak deskribatzen dituen memoria, plegu honetan eta arau teknikoen pleguan ezarritako eskakizunak betetzeko egokitasuna baloratzeko beharrezkoa den informazioa emateko; prozedura honen helburuak kontuan hartuta, memoria horretan honako agiri hauek sartu ahal izango dira:

1.1) Lizitatzaillearen lan metodologia, proiektuaren emaitzak eskualdeko ingurune sozio-ekonomikoan adierazgarriak diren eragileekin kontrastatzeko aukera emango duena, zehazki deskribatuta.

1.2) Lanak egituratu, koordinatu eta antolatzeko metodologiaren deskribaketa, bereziki DEBEGESArekin eta faseak egokitzat eman eta amaierako proposamena onartu beharko dituzten entitate eskudunekin lotutako alderdietan.

1.3) Lanak gauzatzeko beharrezkoak izan daitezkeen faseen deskribaketa, bai eta fase bakoitzean egokitzat eman eta amaieran onartu beharko diren agiriena ere.

1.4) Lizitatzaillearen ustez egin beharreko lan garrantzitsuenen deskribapen laburra, honakoak behinik behin:

1.4.1.- Azterketa lanak. Diagnostikoa.

1.4.2.- Deba ibaian erabili beharreko strategiari buruzko hausnarketa agiria. Estrategiaren definizioa.

1.4.3.- Ekintza planaren agiria.

1.4.4.- Komunikazio planaren agiria.

2) Kontratua betetzeko atxikiko diren langileen organigrama, zehaztapena, curriculum vitarum eta kontratuan izango duten dedikazioa: diziplina anitzeko talde teknikoa izango da, azterketa-eremu desberdinetako

espezialistekin (legeria, lurraldearen antolamendua eta hirigintza planeamendua, ingurumena, turismoa, ondarea etab.).

3) Ingurumeneko ziurtagiriak, beharrezkoak direnean.

14. NEGOZIAZIO FASEA

DEBEGESAko teknikariek kalifikatuko dituzte behar den epean eta moduan aurkeztutako agiriak, eta zuzentzeko moduko akatsak edo ez-betetzeak atzemanaz gero hiru egun balioduneko gehieneko epea emango dute, lizitatzailleak akats edo ez-betetze horiek zuzen ditzan.

Aurkeztutako dokumentazioan atzemandako akats edo ez-betetze horiek zuzenduta eta, plegu honen 10., 11. eta 13. klausuletan ezarritakoarekin bat, eskatzaileen nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatuta, negoziazio fasea hasiko da, 15. klausulan adierazitako alderdi ekonomiko eta teknikoei buruz baizik ez.

Negoiazioan, kontratazio organoak zainduko du lizitatzaille guztiek tratu bera izan dezaten. Eta bereziki, ez du diskriminaziorik eragingo lizitatzaille batzuei besteekiko abantaila ekarriko dien informazioa emanez.

Negoiazioa amaituta, haren ondorioz jarrera aldatu duten parte-hartzaileek amaierako eskaintza igorri beharko dute DEBEGESAra, eskaintza ekonomiko onena zein den erabaki eta aukeratzeko.

15. NEGOIAZIOAREN GAIK

Negoiazioa gai ekonomiko eta tekniko hauen ingurukoa izango da:

- Proposamen metodologikoa

- Kontratua betetzeko atxikiko den lan taldearen esperientzia eta kideak
- Proposamen ekonomikoa
- Epea
- Sortu beharreko materialak (agiriak, planoak etab.)

16. PROPOSAMENEN EBALUAZIOA

Eskaintzak ikusirik eta, hala behar denean, parte-hartzaileekin negoziazioak egin eta amaitu ondoren, elkarteko teknikariek espedientea aztertu eta ebaluatuko dute, eta gero adjudikatzeko proposamena igorriko diote kontratazio organoari, hartutako eskaintzak, horiek onartu edo atzera botatzeko arrazoiak eta egindako negoziazioak adierazita, bai eta kontratuaren behin betiko ezaugarriak zehaztu eta finkatuta ere.

17. KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA

Adjudikatzeko proposamenak ez du proposatutako lizitatzaillearen aldeko inolako eskubiderik sortzen kontratazio organoarekiko. Halere, organoak ez badu kontratua adjudikatzen egindako proposamenaren arabera, erabakia arrazoitu beharko du.

Kontratazio organoak negoziazioa amaitu eta HILABETEKO (1) gehieneko epean adjudikatu beharko dio kontratua ekonomikoki onena den eskaintzari. Adjudikazioa gainerako lizitatzaillei jakinaraziko zaie eta DEBEGESAren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

18. ADJUDIKAZIO HARTZAILEARI ESKATU BEHARREKO AGIRIAK

Adjudikazio hartzaileak, adjudikazioa kontratatzailearen profilean adjudikazioa argitaratu eta hamabost egun balioduneko epean, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela frogatu beharko du, altaren agiria aurkeztuz, ekitaldi honetakoa baldin bada, edo JEZaren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Edozein kasutan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizuneko aitorpena ere erantsi beharko da.

b) Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 73. artikulutik 76.era bitartekoetan (erantzukizun zibileko aseguruari buruzkoak) arautzen diren kalteen kontrako aseguruaren motako aseguru polizaren kopia, aseguratuaren lizitatzailerak bera izanik. Aseguruaren gutxieneko zenbatekoa adjudikazioaren prezioa adinakoa izango da, kontratuak irauten duen bitartean indarra izan beharko du eta kontratuaren xede diren lanak barne hartu.

c) Enpresen aldi baterako legezko elkartearen osatu baldin bada, horren egiaztagiria.

19. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua Kontratazio organoak adjudikazioa egin eta DEBEGESAren kontratatzailearen profilean argitaratuta burutuko da.

Kontratua agiri pribatuan formalizatuko da hamabost egun balioduneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, adjudikazio hartzaileak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikoan jasotzea. Kasu horretan, formalizazio gastuak hark ordainduko ditu.

Kontratatari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua adierazitako epean formalizatzen ez bada, DEBEGESAk suntsiaraztea erabaki ahal izango du.

Kasu horretan, DEBEGESAk beste adjudikazio bat egin ahal izango du hurrengo lizitatzaillearentzat edo lizitatzailleentzat, betiere egin ahal bada eta adjudikazio hartzaile berria ados baldin badago, eta kasu horretan hamar egun balioduneko epea emango zaio aurreko klausulan aipatzen den dokumentazioa aurkez dezan.

20. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Kontratatari horretarako ezarritako osotarako epean bete beharko du kontratua. Era berean, kontratuaren klausuletan, plegu honetan eta arau teknikoen pleguan ezarritakori lotuz gauzatu beharko du kontratua, eta kontratazio organoak kontratatari horiek ulertzeko ematen dizkion jarraibideekin bat.

Kontratatari arlo hauetako indarreko xedapenak bete beharko ditu: lan arloa, gizarte segurantzaren, segurtasun eta higieena, eta laneko arriskuen prebentzioa.

Kontratatari datu pertsonalak erabiltzen baditu, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta hura garatzeko arauak dakartzaten betebeharrak bete beharko ditu.

21. KONFIDENTZIALTASUNA

Prozedurako partaideei adjudikazioa jakinarazteari dagokionez plegu honetan xedatutakoa ezertan kendu gabe, kontratazio organoak ezin izango du zabaldu enpresaburuek eman eta konfidentzialtzat jo duten informazioa; izaera konfidentzialak bereziki eragiten die sekretu teknikoei edo merkataritzakoei.

Kontratatutak errespetatu beharko du kontratua betetzea dela-eta eskuratzen duen informazioaren izaera konfidentziala, kontratuan izaera hori eman bazaio edo berezko izaeraren ondorioz halakotzat hartu behar baldin bada.

Zehazki, konfidentzialtzat hartuko dira eta ez dira argitaratuko edo zabalduko, kontratistari kontratuaren exekuzioaren ondorioz edozein euskarritan ematen zaizkion informazio, agiri, artxibo edo zehaztapen guztiak.

Betebehar horrek bost (5) urte iraungo du informazio hori ezagutzen den unetik aurrera.

22. LANEN JABETZA

Kontratatutako lanen emaitza, osoa nahiz faseetako edozeinena, DEBEGESAren jabetzakoa izango da, eta elkarteak eskatu ahal izango du hura osatzen duten agiriak edo materialak ematea, aurrekari, datu edo prozedura guztiekin.

Jabetza intelektualaren menpe dauden lanak kontratatutak osotara espresuki laga egingo dituela ulertuko da, edo, beharrezkoa bada, kontratista arduratuko da hirugarrenek osotara laga diezazkiotela DEBEGESAri, mundu osorako eta herrialde bakoitzean bertako legeek baimendutako gehieneko eperako, eta ezin izango dira erreproduzitu, osorik nahiz zatika, DEBEGESAk aldeztu aurretik baimen espresik eman gabe.

DEBEGESAk adjudikazio hartzaileari kontratu honen xede diren lanak gauzatzeko material informatiboa (informazioa, agiriak, argazkiak, material informatikoa edo edozein motakoa) lagatzeak ez du horien gaineko inolako ustiapen eskubiderik eragiten, lanak bete bitartean erabiltzea ez bada. Hortik kanpo erabiltzeak egile eskubideen urraketa ekarriko du, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta haren osagarri den araudian aurreikusitako moduan eta ondorioekin, eta lagatako materiala DEBEGESari itzuli beharko zaio lanak ematean.

Kontratista izango da jabetza industrialari eta intelektualari dagozkion erreklamazioen erantzulea, eta kontzeptu horiek direla-eta izan daitezkeen erreklamazioetatik etorritako kalte eta galeren ordaina eman beharko dio DEBEGESari.

Kontratista behartuta egongo da lanak egin bitartean erabilitako datu, kalkulu, prozesu eta prozedura guztiak DEBEGESari ematera.

23. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Arau teknikoen pleguan aurreikusitako jarraipen mahaiaz gain, kontratazio organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du, eta haren zeregina izango da kontratuaren exekuzioa gainbegiratzea eta itundutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatze aldera behar diren erabakiak hartu eta jarraibideak ematea.

Zehazki, lan hauek egin beharko ditu:

- Kontratatari berandutzagatik eta exekuzio akastunagatik ezarri beharreko zehapenak proposatzea kontratazio organoari.
- Prestazioaren harreran parte hartzea eta, kasua denean, hartutzat ematea.

24. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

Kontratua 13 hilabeteko gehieneko epean beteko da, baina epe hori hobetu ahal izango da lizitatzailen eskaintzetan, eta hobekuntzak indarra edukiko du kontratuan, formalizatzen denetik aurrera.

Kontratua betetzean, arriskua eta mentura kontratistak hartuko ditu bere gain, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 214. artikuluan ezarritakoa, ezinbesteko kasuei buruzkoa, ezertan ukatu gabe, espresuki ezarri baita aplikatzekoa izango dela.

Kontratua plegu honetan eta arau teknikoen pleguan dauden klausulei estuki lotuta beteko da, bai eta kontratistari kontratuaren arduradunari kontratuaren alderdi teknikoak ulertzeko ematen dizkion jarraibideekin bat ere.

25. KONTRATUAREN LAGAPENA

Kontratuak berarekin dakartzan eskubideak eta betebeharrak hirugarrenari lagatzeko DEBEGESAren alde aurretiko baimena beharko da, idatzizkoa eta espresuki emana, betiere lagapen hartzaileak betetzen baditu legezko baldintzak eta DEBEGESArekin kontratatzeko plegu honetan eskatzen direnak, kontratatzeko debekurik ez badu eta plegu honetan eta arau teknikoen pleguan aurreikusten den baliabide atxikipenerako beharkizuna betetzeko konpromisoa hartzen badu. Arestiko guztia lagapenaren xede den prestazioari edo prestazioei dagokienez.

26. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren prestazioak azpikontratatzeko DEBEGESAren alde aurretiko baimena beharko da, idatzizkoa eta espresuki emana, betiere

azpikontratazioaren hartzaileak betetzen baditu legezko baldintzak eta DEBEGESAren kontratatzeke plegu honetan eskatzen direnak, kontratatzeke debekurik ez badu, plegu honetan kaudimen aldetik eskatzen dena betetzen badu eta plegu honetan eta arau teknikoen pleguan aurreikusten den baliabide atxikipenerako beharkizuna betetzeko konpromisoa hartzen badu. Arestiko guztia azpikontratatu beharreko prestazioari edo prestazioei dagokienez.

Gehigarri gisa, lizitatzailleek kontratua betetzeko aurreikusten duten azpikontraten zerrenda ere aurkeztu ahal izango dute euren eskaintzetan, eta kasu horretan bete beharko dute klausula honen aurreko paragrafoan ezarritakoa eta dagokion dokumentazioa aurkeztu.

27. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da, bai eta behar bezala justifikatutako ustekabeko arrazoiei aurre egiteko.

28. EXEKUZIO AKASTUNAGATIKO ETA BERANDUTZAGATIKO ZEHAPENAK

Kontratistak kontratua bete beharko du horretarako ezarritako osotarako epean eta zatikako epeetan.

Kontratistak, berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, osotarako epea edo zatikakoak bete ez eta berandutza gertatzen bada, DEBEGESA kontratua suntsiarazi ahal izango du edo eguneko zehapenak jarri, aukeran; eguneko zehapenak 0,20 eurokoak izanen dira kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Berandutzagatiko zehapenek kontratuaren 100eko 5aren multiplo batera iristen diren aldiro, kontratazio organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo betetzen segitzea erabakitzeke, zehapen gehiago ezarriz.

Zehapenak kontratistari osoko nahiz zatikako ordainketetarako eman beharreko diru kopuruetatik kenduz gauzatuko dira.

Edozein kasutan ere, bai kontratua suntsiarazteko bai aurrera egiteko erabakia hartuta, DEBEGESAk bere aldetik erabaki ahal izango du beharrezkotzat jotzen duen bitartean jarraitzea zerbitzuekin, bere baliabideekin nahiz hirugarrenekin, eta bi kasu horietan jarraipen horren kostua kontratistaren kargura ordainduko da, ezertan galarazi gabe kalte eta galerengatik izan daitezkeen ordainak eta klausula honetan aurreikusitako gainerako ondorioak.

29. KONTRATUA ETETEA

DEBEGESAk erabakitzen badu kontratua etetea edo 200. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoa aplikatzearen ondorioz (aplikatzekoa baita ondorio hauetarako) etenda geratzen bada, akta bat jasoko da, eta bertan adieraziko zerk eragin duen etetea eta kontratuaren exekuzioa zein egoeratan dagoen.

Etetea erabaki ondoren, DEBEGESAk kontratistari ordainduko dizkio hark benetan eduki dituen kalte eta galerak.

30. PRESTAZIOAREN HARRERA ETA GARANTIAKO EPEA

Ulertuko da kontratua bete dela kontratistak prestazioa osorik, kontratuaren baldintzekin bat eta DEBEGESAren oniritziarekin eman ondoren.

Kontratuko prestazioa amaitu eta hurrengo hilabetean egingo da prestazioaren harrera ekitaldia.

DEBEGESAk zehaztuko du kontratistak egindako prestazioa bat datorren hura bete eta burutzeko ezarritako aginduekin eta, beharrezkoa denean, kontratatutako prestazioak eman eta harreran atzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko du. Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, kontratistari egotzi ahal zaizkion bizio edo akatsen ondorioz, DEBEGESAk atzera bota ahal izango du prestazioa, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geldituko da edo, bestela, ordaindutako prezioa itzuli eta berreskuratzeko eskubidea izango du.

Harrera ekitalditik hasita hilabeteko epean, kontratuaren likidazioa erabaki eta kontratistari jakinaraziko zaio, eta gelditzen den saldoa ordainduko, halakorik badago.

Urtebeteko garantia epea ezartzen da, amaierako harrera egunetik aurrera.

Garantiako epean egiaztatzen bada bizioak edo akatsak daudela egindako lanetan, kontratazio organoak eskubidea edukiko du kontratistari zuzen ditzan eskatzeko.

Garantiako epea amaituta DEBEGESAk aurreko ataletan aipatutako enurak edo salaketa formalizatu gabe, kontratista salbuetsirik geldituko da egindako prestazioaren ondoriozko erantzukizunetik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 286. y 288.1 artikuluetan ezarritakoa ezertan ukatu gabe, aplikatzekoa baita ondorio hauetarako, kasuan kasuko kontratu eta prestazio motari dagozkion egokitzapenak eginda.

Kontratistak eskubidea edukiko du bere iritzia entzun dadin, kontratatutako prestazioa betetzearen inguruan egiten diren oharrei dagokienez.

31. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratataren betebeharra da kontratuaren exekuziorako behar diren operazioen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte eta galeren ordaina ematea.

Kontratista izango da betetzen dituen lanen eta ematen dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea, bai eta kontratuaren exekuzioan izandako ez-egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko ondorioek DEBEGESari edo hirugarrenei ekarritako ondorioena ere.

32. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izanen dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 206. eta 284. artikuluetan aurreikusitakoak eta, oro har, kontratuko betebeharren edozein ez-betetze, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakorekin bat.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako arrazoietakoa edozein dela ere, suntsiarazteak besterik gabe izango ditu ondorioak, DEBEGESak kontratatari egingo dion jakinarazpen fede-emailea egiteaz beste baldintzarik gabe.

Jakinarazpena jaso ondoren, kontratista beharturik egongo da berehala ematera DEBEGESari kontratatutako prestazioak aurrera eramateko ordura arte egindako agiri guztiak, bai eta kontratua dela-eta sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa, DEBEGESak kontratatari eman eta hark erabilitako agiriekin batera, eta denak DEBEGESaren jabetzakoak izango dira hortik aurrera.

Horrek ez du galarazten aurrerago kontratuaren likidazio ekonomikoa, dagokiona, egitea, ondotik xedatutakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik, bai eta legez bidezkoak izan daitekeen beste edozeinengatik ere, kontratua suntsiarazteak ekar ditzakeen erantzukizun ekonomikoak, kontratua ondorio guztiekin suntsiarazi eta kasuan kasuko dokumentazioa eman ondoren likidatuko dira, eta ez da oztopo izango DEBEGESAk kontratuaren exekuzioarekin aurrera egiteko.

Kontratua suntsiarazten den kasu guztietan, kontratistak eskubidea izango du egiaz egindako lan guztien prezioa jasotzeko.

Kontratua kontratistaren errua den ez-betetzearen ondorioz suntsiarazten bada, DEBEGESArri eragindako kalte eta galeren ordaina eman beharko dio, eta kasu guztietan kontratuaren prezioaren %20ko zehapen klausula metagarria ezarriko da.

33. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, kontratua klausula ekonomiko administratiboen plegu honek eta arau teknikoen pleguak arautuko dute eta horietan aurreikusi gabeko alderdietan, berriz, DEBEGESAk kontrataziorako dituen barne jarraibideek, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean horretarako ezarritako arauak (botere adjudikatzaillearen izaera duten eta administrazio publikoa ez diren sektore publikoko entitateek egindako kontratuatarako, erregulazio harmonizatuaren menpe ez daudenetarako) eta, lege horretan aurreikusitakoaren kontra ez doan neurrian, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartu zuen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak.

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, kontratua klausula ekonomiko administratiboen plegu honek eta arau teknikoen pleguak arautuko dute eta, horietan aurreikusi gabeko alderdietan, berriz, DEBEGESAk kontrataziorako dituen barne jarraibideek eta zuzenbide pribatuko arauak.

Gehigarri gisa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea eta Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendua aplikatzekoak izango dira plegu honek berariaz arau testu horietara igortzen duen guztietan.

Maila jurisdikzional zibila izango da eskuduna alderdien artean kontratuaren prestaketa, adjudikazioa, ondorioak, betetzea eta iraungitzea direla-eta sortzen diren eztabaidetan.

Eibarren, 2008ko abenduaren 17an.

DEBEGESAko zuzendari nagusia

Sin.: Juan Angel Bálbas Egea